

3

Alternatibak

Islandia: iraultza isildua

13

Idoia Intxaurbe

ELAko Azterketa Bulegoa

Krisian dauden Europako herrialdeen murrizketak egunkarietako orriak betetzen dituzten bitartean, bada doktrina hauei aurre egin zien herrialde bat Europan: ISLANDIA.

Komunikabideetan ez du ia oihartzunik izan eta nazioarteko erakundeek ez dute inolako interesik izan kasu hau ezagutarazteko, beste toki batzuetan gauza bera errepikatuko den beldurrez.

Islandiako ekonomia aurreko urteetan politika neoliberalak goitik behera aldatu ondoren, finantzek izugarizko boterea lortuta, bazirudien dena ongi zihoala 2008ko krisi ekonomiko finantzieroa etorri arte. 2008ko irailaren 15an Lehman Brothers erori zen. Bi aste geroago

banku islandiarrak. Moneta lokalaren balioa erabat jaitzi zen, burtsarekin, bonoekin eta etxebizitzaren prezioekin batera.

Berehala, urriko lehen egunetan guztioi ezaguna egiten zaigun salbatzailea iritsi zen irlara, Nazioarteko Diru Funtza (NDF). Beren asmoa kontrola bere esku hartzea zen 2.100 milioi dolarretako laguntza baten truke. Maileguaren baldintzetako bat islandiar bankuek zuten zorraren sozializazioa izan zen, hau da, 3.700 milioi euro 15 urtetan ordaintzea %5,5eko interes tasarekin. Islandiako Banku Zentrala berkapitalizatu behar izan zuten fondo publikoekin (BPGdren %18a) geroago banku pribatuekin berdina egingo



zutelarik. Ondamendi honen aurrean, iraultza islandiarra forma hartzen hasi zen. Jendeak guztia galdu zuen eta etapa berri baten aurrean zeudela konturatu ziren. Urriaren bukaeratik 2008ko urte amaierararte jendeak manifestazioetan mobilizatzen ekin zion eta 2009ko urtarrilean izugarriko kazerolada bat antolatu zuten gobernu osoaren dimisioa lortuz.

Esan behar da mobilizazio hauek 20 pertsonekin hasi zirela. Islandian manifestazioak ez ziren begi onez hartuak, ahultasun seinale moduan ulertzen baitziren. Uhartean egin zen azken manifestazioa 1949. urtean izan zen. Baina 2009ko urtarrilean gazte talde batek hartu zuen iniziativa eta parlamentuaren aurrean etenik gabe geratuko zirela esan zuten, gobernuaren dimisioa lortu arte. Une horretatik aurrera gero eta jende gehiago hasi zen mobilizazioetara hurbiltzen eta azkenean lortu zuten euren helburuetako bat. Islandiarren eskaera 5 puntutan laburbildu daite-

ke: Gobernuaren dimisioa, Islandiako Banku Zentraleko zuzendariaren dimisioa, ikuskaritza finantzieroko zuzendariaren dimisioa, hauteskunde orokorrak eta erreforma konstituzionala.

Lehenengo lau puntuak lortu zituzten eta bostgarrena bidean da.

Krisialdi finantziario honek nazioarteko gatazka bat sortu zuen Islandia eta Britainia Handiaren artean. 400.000 pertsonak beren aurrezkiak islandiar bankuen kontuetan jarri zituzten. Arazoaren aurrean gobernu holandarrak eta britainiarrak beraien herritarrei gordailuen zenbatekoak itzultzea erabaki zuten, ondoren hartzekodun gisa Islandiaren kontra jotzeko eta duten zorra kobratzeko.

Hasiera batean gobernu islandiarrak bi gobernu horiekin akordio bat sinatu nahi izan zuen era sekretuan,

erabakia parlamentutik pasatu gabe.

Islandiarrek notizia ezagutu zutenean, 60.000 sinadura batu zituzten erreferendum bat ospatzeko, herritarrek izan zitezkeen zorra ordainduko zuten edo ez erabakitzen zutenak. 2010eko martxoan lehenengo erreferenduma ospatu zen, bertan herritarren %93a zorraren ordainketa-
ren aurka azaldu zelarik.

Hainbat iniziatiben artean Parlamentuan Ikerketa Bereziko Komisio bat eratu zen, islandiar monetaren zorra Holanda eta Britainiarekin aztertzeko eta

NDFaren maileguaren baldintzak aztertzeko. 2.000 orrialdeko informe bat egin zuten eta bertan argi geratzen da islandiar inbertsiodun garrantzitsuenek informazio pribilegiatua erabili zutela. Komisio honek argitaratu zuen informazio hori zeukaten hainbat pertsonak beraien dirua bankuak erori aurreko egunean atera zutela. Islandiako lehen ministro ohia zen Geir Haarde eta Banku Zentraleko gobernadore ohia zen David Oddsson, hainbat agintariren artean, arduragabekeria larria bete izanaz akusatu zituzten, bankuen porrotaren aurreko garaian eta ondorengo nazionalizazio prozesu garaian.

Aipatutako txostenaren arabera, 2008ko udaberrian, Estatu Batuetako krisi finantziarioaren aurretik, Haarde eta Oddssonek informazioa gorde zieten gobernuko gai-

Islandiatik alde egin zuten 9 bankariak atxilotzeko agindua eman zuten Islandian

nontzeko kideei, ez zuten informaziozirik zabaldu hiru banku nagusien egoera kaxkarraren inguruan. Bankuen porrotetik urte terdi geroago, poliziak zenbait bankari atxilotu zituen, bitartean beste horrenbeste negozio gizon eta jabe 2.000 milioi dolarretako epaiketei aurre egin beharrean daude.

Johanna Siguroasdottirren gobernu sozialdemokrata, bankariak saritzen ez zituen Europako lehen gobernu bilakatu zen, herrialdea geratu zen egoera larria beraien ardura zela leporatuz. Hainbat atxilotu zituzten eta Interpoleri eskatu zioten Islandiatik alde egin zuten 9 bankariren gain atxiloketa agindu bat zabaltzeko. Momentuz ez dute lortu inor kartzelaratzea baina egia esan, ez dute itxaropena galdu.

Gaur egun erreforma konstituzionala martxan dago. 2011ko azaroan hauteskundeak ospatu zituzten konstituzio berria idazteko ardura hartuko zuten 25 herritar aukeratzeko. 25 pertsona hauek ez dira politikoak, herritarrek dira, beraien borondatez aurkeztuta eta hauteskontzietan aukeratuak izan dira.

Konstituzioan artikulua berriak idatzi dituzte iraganean gertatutakoa berriro errepikatu ez dadin. Islandian gertatutakoaren arabera oinarritzko lekzio batzuk atera ditzakegu bankuen erreskateen inguruan:

Posible da zorraren ezeztatzearen inguruan neurriak hartzea eta sistema finantzieroa berregituratzea, herritarrek babesteko eta ez merkatuko interesak.

Horrez gain **posible da nazioarteko erakundearen presio eta liskarrei aurre egitea**. Bideragarria da krisialdi honetan ezarri dena ukatzea, hau da, ekonomiaren

suspertzea sortu diren galeren sozializazioa lortzea.

Beharrezkoa da adostasun nazionala egotea nazioarteko presioei aurre egiteko. Islandian oso garrantzitsua izan da manifestazio eta erreferendunetan egondako partehartze aktiboa zorra ukatzeko.

Hobe da aurretiaz sistema finantzieroa hazkundea mugatzea, erreskatera iritsi aurretik eta sistema lehertu aurretik.

Gaur egun Islandia suspertzen ari da. Islandiar koroaren devaluazioak exportazioak erraztu ditu, nahiz eta bankuen egoerarentzat ez dan bate-re onuragarria izan.

Bitartean Euroguneko herrialdeek austeritate plangintzekin jarraitzen dute defizitaren murriztea helburu, Islandian superabita duten bitartean. Langabeziaren tasa %8,1ekoa. Gainera, Europar Komisioaren aurreikuspenen arabera Islandiak BPGdren % 1,5arekin itxiko du urtea eta 2013an %2,3ko igoera izango dutela uste da.

Islandian gertatutakotik hainbat ondorio:

Politika neoliberalen ezarpenek hondamena dakarte.

Desarauketan eta finantziar espekulazioan oinarritutako politika neoliberalak hondamendira bultzatu zuten Islandiako ekonomia. Bide horrek irteera gabeko kale batera eramango gaitu.

Krisiaren irteera politiken erabateko aldaketatik dator, botere politikoaren eskaerei aurre eginez.

Islandian gertatutakoa ez da adibide isolatua. Merkatuen xantaiapean egon diren beste hainbat gobernuak (Argentina edo Ekuador, adibidez) erabaki dute, krisia sortu dutenei ordainarazten. Erabaki hauen emaitzek arrazoiak ematen diete.

Gizartearen mobilizazioa da politikak aldatzeko bidea. Islandiak lekzioa eman digu europarrei. Sistemari aurre egin diote mobilizazioaren bitartez, gobernuak erabakitako politikak efektu gabe utziz. Demokraziaren sakontzea gizartearen esku dagoen tresna bat dela erakutsi digute, lau urtetik behin botoa ematea baino askoz haratago dagoena.

Islandiako kasua iraultza isildua izan zela diote. Baliteke iraultza izatera ez iristea baina ez dago zalantzarik isildua izan zela. Gure egunerokotasunean, gure borroketan, ohituta gaude komunikabide menperatzaileak jokatzen duten paperaz. Gure borrokek isilarazten dituzte.

Botere ekonomiko, finantziero eta politikoari beldurra ematen die gauzak aldatzea posible dela erakustea, mobilizazioek beraien egungo estatusaren aldaketa esanguratsua ekar dezakete. Hori ere Islandian gertatutakoaren ondorioa da. Boterea hauskorra da eta indarra gure esku dago. Horren kontziente izatea da dagoen eta botere handiena.

Boterea hauskorra da eta indarra gure esku dago